

Myanmarko miseriatik, junta militarren aginpidetik nahiz gatazka armatuetatik ihesi, asko dira Moei ibaia paperik gabe gurutzatu eta Thailandiara iristen diren birmaniarrek. Eskubidez urri, bertako nahiz nazioarteko oihalgintzarako eta nekazaritzarako eskulan merkea.

# Moei ibaiaren beste aldean

**Angel Amargant-  
Marta Vilanova** Mae Sot

**B**irmaniarra da Uvai Lwin, eta 24 urte ditu. Myanmarren jaioa, duela bi urte erabaki zuen bere herritik alde egitea. Bizimodu hobe baten bila abiatu zen Thailandiarantz. Lana aurkitu zuen Mae Sot mugako hiriko oihalgintzarako. Baldintza gogorretan egiten du lan: hamabi orduko lanaldia, atsedeen egunik ez, eta hiru euroko soldata egunean. Lan asko dagoenean gau osoan egiten du lan. Hala eta guztiz ere, pozik dago Lwin. «Nire herrian oinetako fabrika batean egiten nuen lan. Ordu gehiago sartzen nituen, gutxiago irabazten nuen, eta arduradunak gaizki tratatzen ninduen». Lantokiko jabeak ere uste du baldintza egokiak eskaintzen dituela: «Hilero hilero Poliziari ordaindu behar izaten diot, birmaniar paperik gabeek hemen lan egin dezaten. Bestela, deportatu egingo litzukete».

Ez da gertaera bakana. Myanmarko bi milioi lagun bizi dira ondoko herrialdean inongo dokumentaziorik gabe. Moei ibaia ilegalki zeharkatzen dute; hura da Myanmar eta Thailandia arteko muga naturala. Gatazka politikogatik lekualdatzen dira gehienak. Myanmarko Gobernuaren eta talde etnikoen artean gatazka armatua dago, eta errepresio militar handia pairatzen dute. Beren ekonomia egoera aldatzeko asmoz ere alde egiten dute, batzuek. NBERen arabera, ia zko urtarrilean 136.499 iheslari bizi ziren mugan. Bederatzi kanpaleku daude bi herrialdeen arteko mugan. Dena den, desplazatu gehienek egoera irregularrean egiten dute lan Thailandian.

Myanmarko etorkin eta ekin-tzaileek YCOWA Young Chi Oo Langileen Elkarte sortu zuten duela hamabost urte. Pertsonen trafikoa detektatzeaz eta langileei babesa eskaintzeaz arduratzen dira gehienbat. Langileen eskubidei buruzko prestakuntza eskaintzen diete, eta horiek defendatzeko antolatzaera animatzen dituzte. Baldintza gogorrenak nekazaritzan eta ehungintzan dituzte. Myo Zaw langileen elkarte-ko ordezkariak azaldu duenez, landa eremuetan lanaldi amaigabe egiten dituzte, astelehenetik igandera, ikaragarriko beroarekin eta egunean 2 eta 3,5 euro arteko lansariarekin. Thailandiako

**Thailandiako iheslari guneetan 136.499 birmaniar daude, baina bi milioi inguru dira paperik gabe auzoan bizi direnak**

**Atsedeen egunik gabe eta lanaldi amaigabeekin, 3,5 euro artean irabazten dute egunean: batez besteko soldataren heren bat**

**Mae Sot-en 30.000 thailandiar eta 60.000 birmaniar bizi dira, gehienak egoera irregularrean, udalak adierazi duenez**

batez besteko soldata 7 eta 12 euro artean dago. Enpresariei, ordea, egoerak bere horretan jarraitzea komeni zaie. «Ehungintzan oso zaila da norentzat lan egiten duten jakitea, bitartekari ugari baitaude, eta ikerketa atzeratu egiten dute horiek». Elkartearen arabera, egoera hori «sustatzen» duten markak «bertakoak eta nazioartekoak» dira. Langile elkarteak 160 kasu baino gehiago irabazi, eta 2.100 myanmartar lagundu ditu. Etorkizun hurbilean sindikatu bihurtu nahi dute.

Pertsonen trafikoa da immigrazioaren alderik ilunenetakoa, eta Thailandia behartutako lanarene gune nagusietakoa da mun-

duan. Arrantzan, nekazaritzan, etxeko lanetan eta prostituzioan aritzen dira derrigortutako langile gehienak. Egoera horretan ez dago genero bereizketarik, ezta adin desberdintasunik ere. Emakumeak, gizonak eta haurrak bizi dira egoera horretan. Myanmar-tik ez ezik, Laostik, Txinatik, Kanbodiatik eta Vietnamiatik etorritakoak pairatzen dute egoera hori. Gobernuari, arduradunak zigortzeko neurri gogorrik ez hartzea leporatzen diote.

Tan Ook bere larruan bizi du egoera. YCOWAren harrera etxera iritsi berria da, 44 urte ditu, eta elkarriketatu baino bi egun lehenago lortu zuen etorkin trafikoa-  
ren saretik ihes egitea. Amesgaizto bat bizi izan du urtebetean. Beste myanmartar asko bezala, Mae Soteko zabortegian bizi zen, bere hiru seme-alabekin. Duela urtebete arrain haztegi batean lana eskaini zioten. Paperik gabe lanean hasi, Poliziak atzeman, eta 90 euroko isuna jarri zioten. Tan Ook, ordea, ez zuen hura ordaintzeko dirurik, eta Poliziak

isuna ordaindu zuen Myanmarko emakume bati saldu zion gizona. Emakumearen itsasontzian aritu zen lanean sei hilabetez, soldatarik gabe, «isuna ordaintzeko». Egunduan oso lanaldia amaitzean, etxean lotzen zuen jabeak. Azkenean ihes egin, eta Bangkokera joan zen. Elkartearen berri izan zuen han, eta berriro Mae Soteko zabortegian bizi da familiarekin.

«Mae Soten 30.000 thailandiar eta 60.000 birmaniar bizi dira, egoera irregularrean gehienak», dio udaleko kudeaketaburuak. Haren esanetan, «birmaniarrei lanerako baimenak errazteko politika ekonomiko berri bat» lantzen ari dira; noizko, ez dakite.



**Mae Sot hiriko zabortegian 120 familia inguru baldintza negargarrian bizi dira. Bizibidea**

Udalak adierazi du ez dutela polizia ustelkeriaren berririk eta ez dakitela zein den hiriko zabortegian egoera ere. 120 familia baldintza negargarrian bizi dira. Zaborra birziklatzea dute bizibidea.

Sannar, 13 urteko neskatua, han bizi da. Hamabi orduetik gora egiten du lan eguneroko. Kamioia iritsi orduko, lasterka joaten da bertako plastikoa hartzera. Eltxoak jirabiran dituzten zabor poltsatan sartzen du eskua; eskularrurik gabe, usteldutako janari eta likido toxiko artera. Egunean hiru euro irabazten ditu.

## **Haurrak, talde ahulena**

Mae Sot hiriko eskualdean, 20.000 haur inguruk ez dute hezkuntzara sarbiderik. Colabora Birmania gobernuak kanpoko erakundearen zeregina horixe da, haurrak eskolaratzen laguntzea.

Hala dio Javi Garciak, elkarteko kideak: «Haurrak gizarte talde ahulena dira, beraiek dute prostituzioan, laneko esplotazioan eta organo nahiz etorkin trafikoa erortzeko arriskurik handiena». Haurren eskolatzeta da, hain zuzen, erakundearen zeregina nagusia. «Gutxieneko hezkuntza, babesa eta otordua bermatzen dizkiegu gure eskoletako haurrei».

Myanmarri diktadura garaian ezarri zizkion zigorrak arintzen eta berriro negoziatzen egiten hasi da aspaldian Mendebaldeko gobernuaren ziorizteraino herrialdearen demokratizazioa egoki eramanen ari delakoan. Myanmar «zuzen» aurreratzen ari den bitartean, ehunka herritar Thailandian bizi dira baldintza penagarrietan eta eskubiderik gabe, nazioarteko eta bertako enpresek esplotatuta.



zaborra birziklatzea dute, eta inolako segurtasun neuririk gabe aritzen dira gai toxikoen artean. ANGEL AMARGANT

## MYANMAR, KOLPEAN

**1** 1962ko estatu kolpearen ondoren, junta militar baten mende egon da Myanmar 2011 arte. Giza eskubideak urratzea egotzi izan diete behin baino gehiagotan diktadurako agintariari.

**2** Herrialdeko protesta nagusiak, indarkeriarik gabekoak, 8888 altxamendua (1988) eta Azafrairearen Iraultza (2007) izan ziren. Ekintzaileak, ikasleak eta monjeak izan ziren junta militarren kontrako protesten sustatzaileak. Diktadurak gogor erreprimitu zituen: milaka hildako eta atxilotu eragin zituen.

**3** Junta militarra indarrean jarri eta 30 urtera, 1990ean egin ziren lehenengo hauteskunde demokratikoak. NLD Demokraziaren Aldeko Ligak irabazi zituen, parlamentuko 492 eserlekuetatik 392 eserleku lortuta. Junta militarrek ez zituen emaitzak onartu, eta zibilei boterea emateari uko egin zion. Aung San Suu Kyi NLD alderdiko burua atxilotu egin zuten. Etxean bete du zigorra 2010era arte.

**4** Nazioarteak egindako presioaren eraginez, hauteskunde orokorretara deitu zuen junta militarrek 2010eko azarorako. NLD ez zen aurkeztu, gobernua ez zituelako alderdiaren eskari nagusiak bete. Junta militarren boterea gutxitzea, nazioarteko behatzaile talde batek hauteskundeak gainbegiratzeko eta preso politikoak askatzea ziren, besteak beste, NLDren eskari nagusiak.

**5** Thein Sein da gaur egungo presidentea. Than Shwe junta militarreko buroaren konfiantzazko gizona izan zen, eta Myanmar lehen ministro izan zen 2007. eta 2011. urteen artean.

**6** Hauteskundeak egingo dituzte aurten presidentea aukeratzeko. Aldaketa ekarriko duten bozak izatea nahi dute Myanmar herriarrek. Arazo bat badute, ordea. Legedia aldatu ezean, Aung San Suu Kyi ezin izango du bozetara aurkeztu. Atzerriko pertsona batekin ezkontuta egon denari eta harekin seme-alabaren bat izan duenari, izan ere, presidentegai izatea galarazten baitio Konstituzioak.

**7** Pobreziaren mugaren azpitik dago Myanmar konstituzioaren laurden bat, Nazio Batuen Erakundearen datuen arabera.

**8** Myanmar Gobernuak hainbat su-eten sinatuak ditu etnia taldeen gerrillekin, baina borrokek oraindik jarraitu egiten dute, Kachin, Shan eta Rakhine estatuetan, esaterako. 1948an independentzia lortu zutenetik, etnikak gutxietsi egin dituzte agintari birmaniarrek. Negoziazioei ekin zieten 2014ko irailean gatazka amaitzeko, baina oraindik ez dute akordiorik erdietsi.

**9** 1azko urrian AAPP Myanmar Preso Politikoen Laguntzarako Elkarteak jakinarazi zuen 72 ekintzaile politiko daudela kartzelan preso; beste 136, berriz, noiz epaituko dituzten zain daude.

2015eko  
**berria beka**

### Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Zuzenketa-itzulpengintza  
arloko  
**beka bat**

### EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2015-2-15 • Eskaera egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.eus](http://www.berria.eus) helbidean daude eskuragarri; bestela, zuzenean bidali curriculuma [gizabaliabideak@berriataldea.net](mailto:gizabaliabideak@berriataldea.net) helbidera.

**berria**